



HAURRAK KIROL ARLOAN ONDO TRATATU ETA BABESTEAREN INGURUKO ATERPE AITORPENEAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

Irailean Athletic Club erakundeak **“San Mamesen Aitorpena”** aurkeztu zuen. Kirola oso elementu garrantzitsua da haurren garapenerako. Haur askok kirol jardueretan ematen dute denbora gehien, familia eta eskola jarduerekin batera.

Kirola eta jolasa funtsezkoak dira ikaskuntza-prozesurako eta balioak transmititzeko. Haurren aisialdi edota kirol arloan lan egiten dugun pertsona guztiok konpromiso irmoa hartu behar dugu esperientzia hori haur guztientzako segurua, dibertigarria eta aberasgarria izan dadin.

Aitorpenean berariaz jaso da honakoa: *“Kirolaren munduak erronka batzuk ditu oraindik, eta horiei berehala heldu behar die. Bereziki, haurren babesa da garrantzitsuena. Haurrak babestea **lehentasunezkoa** lana da klub, federazio, kirol-eskola, kirol-erakunde eta bestelako eragileen kasuan”.*

Gaur egun, gai hori ikusarazten jarraitu beharra dagoela uste dugu, milaka haurrek izaten dituzten arazoak ikusarazi eta denok kontziente izateko.

Azkenaldian, kirol eremuan haurrak babesteko **ekimenak** sortu dira. Baina, hala ere, arlo horretan lan egiten jarraitzeko beharra dagoela ikusten dugu, **haurren kirolaren inguruan lan egiten duten eragile guztiak inplikatu eta konprometitzeko.**

Athletic Club erakundeak **Haurren Babeserako Programa** bat dauka 2019tik (**ATERPE**). Horren bidez, Haurren babesaren kultura sortu nahi dugu gure klubaren barruan. Horretarako, honako aspektuak sendotu nahi ditugu: arriskuen **prebentzioa**, profesionalen **prestakuntza**, eta edozein babesgabetasun egoeraren aurrean **erantzuteko gaitasuna**.

ATERPE programaren bidez, eragile batzuk haurren kirolaren ekosisteman egiten ari diren eta egin behar diren ahaleginarekin bat egin nahi dugu, **haurren eskubideak eta babesa testuinguru guztietan lehenesteko.**



ATHLETIC CLUB

Aitorpenaren barruan, urtero honako ekimena antolatzeko asmoa adierazi da: “Aisialdi eta kirol arloan haurrak babesteko Aste Iberoamerikarra”. Apirilaren azken astean izango litzateke. 2021ean egingo da lehen aldiz.

Data hori aukeratu da, izan ere, apirilaren 25ean Haurrenganako Tratu Txarren aurkako Nazioarteko Eguna da.

Astean zehar, arlo horren inguruko sentsibilizazio-ekintzak, prestakuntza-jarduerak eta adituen arteko solasaldiak antolatuko dira.

Haur guztiek merezi dute kirol esperientzia osasungarri, seguru eta dibertigarria. Hori zor diegu.

Aisialdi eta kirol arloan haurrak babesteko Aste Iberoamerikarraren lehenengo edizioan, lehenengo “ATERPE aitorpena” deitu nahi dugu, kirol eremuan haurrak babestu eta ondo tratatzearen ingurukoa. Kirola babesleku dela azpimarratu nahi dugu.

Datu orokorrak: “ATERPE aitorpena”, babes praktika egokiak izan eta haurrak kirol arloan ondo tratatzea: kirola babesleku.

Jarduera:

Deialdia: 2021

Zabalkundea: Klubaren ohiko bideak.

Antolatzailea: Athletic Cluben ATERPE proiektua.

HELBURUAK

- **Haurrak kirol munduan ondo tratatu eta babestera bideratutako ekintzak, programak, proiektuak, protokoloak edota politika publikoak ikusarazteko espazioak sortzea.**
- **Gai hori lantzen ari diren pertsona, erakunde publiko, kirol erakunde eta klubaren ahalegina aitortzea.**
- **Aitortutako praktika egoki horiek beste testuinguru batzuetara ere eramateko aukera ematea.**
- **Kirol arloan haurrak babesteko lan-sareak sortu eta ezagutzak partekatzea.**

HAUTAGAITZAK ENTREGATZEKO MODUA ETA EPEA

1. **PROPOSAMENAK jasotzeko azken eguna: 2021eko APIRILAREN 15a**
2. **Lanak eta horiek egiaztatzeko dokumentuak hona bidali: aterpe@athletic-club.eus**
3. **Mezuan, formulario ofiziala erantsi behar da, datuak ondo beteta.**

PARTE-HARTZAILEAK

ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
IBAIGANE, ALAMEDA MAZARREDO, 23. 48009 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

SAN MAMES ZELAIA - ESTADIO SAN MAMES - SAN MAMES STADIUM
BAZKIDEENGANAKO ARRETA (20. ATEA) - ATENCIÓN AL SOCIO (PUERTA 20)
PASEO RAFAEL MORENO PITXITXI, S/N, 48013 BILBAO (BIZKAIA) - TEL: +34 94 406 18 98

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





ATHLETIC CLUB

- **Aitorpena honakoei dago zuzenduta:** Deialdi honen Helburuetan aurreikusitako aspektuen inguruan lan egiten duten kirol erakundeak, pertsonak (profesionalak, boluntarioak), kirol klubak, eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdiko jarduerak, erakunde publikoak, gizarte erakundeak, Fundazioak, Federazioak eta Kooperatibak.
- **Parte-hartzaileak honako kategorietan banatuko dira:**
 - Euskadiko praktika onena.
 - Espainiako praktika onena.
 - Latinoamerikako praktika onena.
 - Aipamenak: Hiru kategoria nagusien inguruko 3 aipamen gehigarri.

EMAITZAK

- Emaizak erakundearen sare sozialen bidez jakinaraziko dira, eta fisikoki entregatuko dira.
- Sari-banaketa: 2021eko apirilaren 30a.
- San Mames estadioan egingo da banaketa.

